**AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA**

**AMETX ERAKUNDE AUTONOMOA**




**13ª BECA DE INVESTIGACIÓN SANTIAGO ONAINDIA**

Amorebieta-Etxanoko Udalak, Ametx Erakunde Autonomoaren eskutik, EUSKAL LITERATURAREN alorrean IKERKETA sustatzeko xedeaz eta Santiago Onaindia idazlearen omenez, haren ikerketa- eta sorkuntza-lanen jarraipena den bi urterik behineko ikerketa-bekaren 13. ediziorako deialdiari ekin dio.

Beka honek, ondorio guztietarako, izen hau dauka:

## "SANTIAGO ONAINDIA IKERKETA BEKA"

## Baldintzak

### Izendagaiak

Banaka nahiz taldean aurkeztutako proiektuak izan daitezke hautagai. Bigarren kasu horretan, proiektuaren zuzendari-arduraduna izendatuko da, taldearen ordezkari izan dadin.

Beka emateko baldintzak bete ezean edo aurreko deialdiren bati dagokion lana amaiturik entregatu ez bada, eskabide horien arduradunak ez du izango hurrengo beka-deialdietara aurkezterik, egoera argitu bitartean.

### Lanak

Originalak eta lehenago argitaratu gabeak izango dira. Euskal literaturaren alorreko ikerketa-lan hauek euskaraz aurkeztuko dira.

### Iraupena

Lana gauzatzeko epea, gehien jota, urtebetekoa izango da, esleitu eta onartzen denetik zenbatzen hasita.

### Zuzkidura

Bekaren zuzkidura 9.000 €-koa izango da.

### Ordainketa

Honela burutuko da ordainketa:

> % 40 beka esleituta, hura onartu ondoren.

> % 30 sei hilabete igarota aurkeztu beharreko txostena aurkeztu eta onartu ondoren.

> % 30 lan osoa aurkeztu eta onartu ondoren.

### Dokumentazioa

Bekarako izena eman nahi dutenek dokumentazio hau bidaliko dute Ametx Erakunde Autonomora (Zelaieta Zentroa. Zelaieta Parkea z/g. 48340 Amorebieta-Etxano):

a) Bekadun izan nahi duenaren edo, taldea balitz, taldeko ordezkariaren eskaera.

b) Eskatzailearen edo, taldea balitz, taldeko kide guztien "Curriculum vitae"ak, egindako ikasketak, izandako lanbide-jarduerak, burututako ikerketak, lortutako sariak, argitaratutako lanak, eta abar.

c) Egingo den lanari buruzko txostena, honakoak azalduz:

> Lanaren interesa.
> Luzera edo iraupena.
> Ikerketa-lanen epeak.
> Erabiliko den metodologia.
> Lan-zentroak.
> Bitartekoak.

### Dokumentazioa aurkezteko epea

- Dokumentazioa aurkezteko epea 2013ko uztailaren 15ean, 14:00etan amaituko da.
- Ametx Erakunde Autonomoaren Erregistroan (Zelaieta Zentroan) aurkeztuko da dokumentazioa, eta bertan emango dira deialdi honen inguruko argibide guztiak.
- Egun berean postetxean utzitako proiektuak onartuko dira, baldin eta proiektua posta ziurtatuz bidaltzen bada. Horrelakoetan, eskaerak kartazal irekian aurkeztu behar dira, posta-funtzionarioak, ziurtapena egin baino lehen, eskaerei data eta zigilua jar diezazkien.

### Bekadunen betebeharrak

a) Bekadunak idatziz adieraziko du beka onartu duela, beka berari eman zaiola jakinarazten zaionean zenbatzen hasi eta egutegiko 15 egunen epean. Beka jasotzen duenak uko eginez gero, Epaimahaiak, egoki baderitzo, zerrendan hurrengo dagoenari eman ahal izango dio beka.

b) Beka eman dela jakinarazten denean zenbatzen hasi eta sei hilabeteko epean, lanaren garapenaren egoerari buruzko txostena aurkeztu beharko du.

c) Hala lanean nola ikertzaile-taldean aldaketaren bat egin ahal izateko, idatziz jakinarazi beharko zaio aldez aurretik Epaimahaiari, eta Epaimahaiak erabakiko du aldaketa onartzen denentz.

d) Bekaren amaieran lan osoa aurkeztu beharko da idatziz eta euskarri informatikoan.

e) Ametx Erakunde Autonomoak egoki iritziz gero, bekadunak landutako edukiaren berri emango du jendaurreko ekitaldi batean.

### Lanaren jabetza

- Lanaren jabea egilea izango da. Ametx Erakunde Autonomoak beretzat gordeko du ikerketa-lanaren argitalpen osoa edo zatikakoa egiteko lehenengo eskubidea. Horrela eginez gero, bekadunak uko egingo dio egile-eskubideak jasotzeari.
- Ametx Erakunde Autonomoak eskubide hau erabili nahi badu, hala paper-formatuan nola euskarri informatikoan, jakinarazi egingo dio egileari, lana behin betiko jasotzen duenean zenbatzen hasi eta sei hilabeteko epean, eta bi urteko epean argitaratu beharko du. Epe hori igarota, egileak askatasuna izango du lana berak argitaratzeko. Horrela eginez gero, jasotako bekaren aipamena egingo du argitalpenean.

### Epaimahaia

- Ametx Erakunde Autonomoaren presidenteak izendatuko ditu epaimahaikideak, dagokion jakintza-arloko adituen artean.
- Dokumentazioa aurkezteko azken egunean zenbatzen hasi eta hiru hilabeteko epearen barruan jakinaraziko da nori eman zaion beka.
- Epaimahaiak beka inori ez ematea erabaki dezake, aurkeztutako lanek bere ustez beharrezko baldintzak eta garantiak betetzen ez badituzte.
- Bekarako proiektuak aurkezten dituzten eskatzaileek, eskatze hutsaz, uko egingo diete Epaimahaiaren ebazpenaren aurka egiteko mota guztietako egintzei.

### Gorabeherak

- Ametx Erakunde Autonomoak ebatziko ditu bekaren tramitazioan gertatzen diren gorabehera guztiak, eta horien ondoren ez da bestelako errekurtsorik izango. Era berean, Beka indarrik gabe utzi ahal izango du, baldin eta bekadunak adierazi zaizkion betebeharrak betetzen ez baditu.
- Bekadunak, lanak dirauen bitartean bekari uko egiten badio, eskubide guztiak galduko ditu, eta itzuli egin beharko ditu ordura arte jasotako diru-kopuruak.



Informazioa:
Ametx Erakunde Autonomoa
Tel. 94 630 06 50
euskara@ametx.net
www.ametx.net

AMOREBIETA - ETXANOKO UDALA

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LABAYRU IKASTEGIA

El Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano, mediante el Organismo Autónomo Ametx, y al objeto de fomentar la INVESTIGACIÓN en el campo de la LITERATURA VASCA y como homenaje al escritor Santiago Onaindia, convoca la 13ª edición de la beca bianual de investigación, para que en la misma se refleje la continuidad de su labor creativa e investigadora.

Esta beca, a todos los efectos, se denomina:

# *"BECA DE INVESTIGACIÓN SANTIAGO ONAINDIA"*

## Requisitos

### Candidatos/as

Podrán optar a esta beca tanto personas individuales como equipos de trabajo formados al efecto. En este segundo caso, el equipo debe estar representado por un director/a responsable del trabajo.

El incumplimiento de las condiciones para la concesión de la beca o la no entrega del trabajo correspondiente a una convocatoria anterior de la misma, incapacitará al responsable para presentarse en posteriores convocatorias, en tanto en cuanto no se clarifique la situación.

### Trabajos

Han de ser originales e inéditos. Dichos trabajos de investigación en el campo de la literatura vasca se presentarán en euskara.

### Duración

El plazo máximo para la realización del trabajo será de 1 año a partir de la adjudicación y aceptación de la beca.

### Dotación

La dotación de la beca será de 9.000 €.

### Abonos

Su abono se efectuará de la siguiente forma:

> 40 % del importe al adjudicarse la beca, previa aceptación de la misma.
> 30 % previa presentación y aprobación del informe semestral.
> 30 % previa presentación y aprobación del trabajo final.

### Documentación

Los candidatos/as remitirán al Organismo Autónomo Ametx (Centro Zelaieta. Parque Zelaieta, s/n 48340 Amorebieta-Etxano) la documentación que se indica:

a) Solicitud del candidato/a y en el caso de que se trate de un equipo, del representante del mismo.

b) "Curriculum vitae" del solicitante y en el caso de equipo, de todos sus miembros, con relación a los estudios realizados, actividades profesionales desempeñadas, investigaciones llevadas a cabo, premios obtenidos, publicaciones, etc.

c) Informe detallado sobre el trabajo, en el que se hará constar:

> Interés del trabajo.
> Amplitud y duración del mismo.
> Plazos de la investigación.
> Metodología a utilizar.
> Centros de trabajo.
> Medios de los que se dispone.

### Plazos de presentación de la documentación

- El plazo para la presentación de la documentación prevista en el apartado anterior termina a las 14:00 del día 15 de julio de 2013.
- La documentación se depositará en el Registro del Organismo Autónomo Ametx (Centro Zelaieta), donde se resolverán cuantas consultas puedan realizarse relacionadas con esta convocatoria.
- Se aceptarán, asimismo, proyectos enviados por correo certificado, en cuyo caso las solicitudes se presentarán en sobre abierto en la oficina correspondiente, para que el funcionario/a de correos las feche y selle antes de certificarlas.

### Obligaciones de los becarios/as

a) Comunicar por escrito la aceptación de la Beca en el plazo de 15 días naturales a partir de la fecha de la notificación de la concesión de la misma. En caso de que el adjudicatario/a de la beca renuncie a ésta, el Tribunal, si lo estima procedente, podrá designar al siguiente candidato/a de la lista.

b) Remitir un informe semestral sobre el desarrollo del trabajo de acuerdo con el programa establecido en el informe presentado.

c) Comunicar por escrito las alteraciones del plan previsto o de la composición del equipo investigador, al objeto de que el Tribunal las apruebe.

d) Al término de la Beca se presentará el trabajo final, por escrito y en soporte informático.

e) En el caso de que el Organismo Autónomo Ametx lo estime adecuado, el autor/a del trabajo hará una presentación pública del mismo.

### Propiedad del trabajo

- El trabajo será propiedad del autor/a. El Organismo Autónomo Ametx se reserva el derecho prioritario de la publicación total o parcial de las investigaciones, en cuyo caso el becario/a renunciará a la percepción de los derechos de autor.
- La utilización por parte del Organismo Autónomo Ametx de este derecho, tanto en formato papel como en soportes informáticos, deberá ser expresada en el plazo de seis meses a partir de la recepción definitiva del trabajo, y dispondrá de un plazo de dos años para realizar la publicación, pasado el cual, el autor/a será libre de publicarlo por su cuenta, si bien en cualquier caso deberá hacer referencia de la Beca recibida.

### Tribunal

- El Tribunal será designado por la presidencia del Organismo Autónomo Ametx entre reconocidos especialistas de la disciplina motivo de esta beca.
- El resultado de la concesión de la Beca será dado a conocer dentro de los tres meses siguientes a la finalización del plazo de presentación de la documentación.
- El Tribunal podrá declarar desierta la adjudicación de la Beca si a su juicio los trabajos presentados no reúnen las condiciones y garantías necesarias.
- Los candidatos/as, por el solo hecho de solicitar la Beca, renuncian a toda clase de acción judicial o extrajudicial contra el fallo del Tribunal.

### Incidencias

- El Organismo Autónomo Ametx podrá resolver sin ulterior recurso cuantas incidencias se produzcan durante la tramitación de la beca y dejar sin efecto la ayuda, si el beneficiario/a incumple las obligaciones señaladas en los distintos apartados.
- Si el becario/a, durante la realización del trabajo ganador de la beca, renuncia a ésta, perderá todos los derechos adquiridos, habiendo de reintegrar las cantidades percibidas hasta ese momento.